

# BIDANKOZE

Bidankoze herriak, pirinioetako magalean kokaturik, natura ingurune aparta eta historia aberatsaz gain, mendi kirola praktikatzeko aukera ezin hobeak eskaintzen ditu


TESTU ETA ARGAZKIAK



Ioritz Gonzalez Lertxundi  
(Azkoitia, 1980)

Eskalatzailea, 25 urte baino gehiagoko esperientzia du. Pyrenaicako erredakzio taldeko kidea.

Antton Zabala ZIBISMOAREN SEME TIRANOAK 8a




## INGURUMENA ETA HISTORIA

Bidankoze Erronkaribarra osatzen duten zazpi herrietako bat da, Nafarroa ekialdeko muturrean dagoen Pirinioetako eskualdea (Bidankoze, Burgi, Garde, Erronkari, Urzainki, Izaba eta Uztarrozek osatzen duten eskualdea). Erronkaribarreko ia herririk txikiena eta ezkutuen da, eta ibarreko gainerakoak

bezala, Bardeetara jaisten diren artzain trahumanteen herria dugu, ibaietatik zura garraiatzen zuten almediatzainena, Mauleko espartinen lantegietara joaten ziren neska gazteena eta Erronkariko gazta famatua ekoizten duena (Onkizu gaztandegian).

Pirinioetako bailara ikusgarri hau baso preziatu eta mardulez josia dago. Bertako basoetan arruntak dira pinu gorria, izeia, artea, pagoa, edota haritza bezalako zuhaitzak, beste batzuen artean. Bidankozeko lursailetan zehazki, pinu gorria (*Pinus sylvestris*) dugu





Mireia Roca Tsunami Democratic 7a

errege, bere lursailen ia %62a estaltzen duen larririk, eta konifera eta zuhaitz hostozabal autoktonoak ere kopuru handian aurki daitezke, ia lursailen %20a iritsiz. Ezaugarri berezi bezala aipa daiteke inguruko basoetan hainbat izei (*Abies alba*) aurki daitezkeela, egun, gure inguruneko basoetan ikusteko hain erraza ez den bertako espezie bat.

Geologiari erreparatu, paraje hauetan gehien aurki daitekeen haitz mota kareharria da. Honek badu bere arrazoia, izan ere, kontuan izan behar da Pirinioetako mendebaldean dagoela kokaturik, eta jakina denez, Pirinioen jatorria hainbat gertaera geologikoren ondorioa da. Zehazki Erronkariko bailara duela 65 milioi urte itsasoko urez estalia zegoen, bertako hondo sakonean hainbat izaki bizidunen sedimentuak pilatzen joan zirelarik (oskolak, eskeletoak, etab.). Denboraren poderioz eta konpresio-indarren eraginez sedimentu guzti hauek haitz bilakatzen joan ziren, hainbat sedimentu geruza sortuz. Ondoren, plaka tektonikoen mugimenduen eraginez geruza hauetako batzuk altxatuz joan ziren, Erronkariko mendiak eratuz. Honetaz gain, mendi hauek milioika urteetan zehar hainbat fenomeno naturalen higadura jasan izan dute (ura, elurra, izotza eta haizea), egun ezagutzen ditugun erliebeak eratuz. Ondorioz, Erronkari bailaran erliebe karstikoa da nagusi, eta erliebe hauen itxuran urak eragin handia du, haitzean barneratzean kareharria disolbatzen baitu, leizeak, dolinak eta lapiazeak sortuz.


## Pirinioetako bailara ikusgarri hau baso preziatu eta mardulez josia egoteaz gain, historia aberatseko eskualdea da

Erronkaribarra bestalde historia aberatseko eskualdea da, eta Bidankoze ez da historia mamitsu honetatik at geratu. Gaur egun erronkariaraz gorderik dauden testu esanguratsuenak Bidankozen idatziak dira. Izan ere, erronkariko bailaran Bidankoze izan zen "uskara" hizkuntzari eutsi zion azken herria, ziur aski bere kokapen isolatuak lagunduta.

Bidankozek duen historia aberatsaren beste ezaugarrietako bat sorginekiko izan duen lotura da. Izan ere, bertako herritarrak "sorgin" ezizenez dira ezagunak Nafarroako gainerako herrietan. Ezizen honen jatorria ziur aski XIX. mendean *belagile* edo *pozogile* gisa jardun izan zuten bi emakumeren



Harrarte de Belasko "G"



inguruan asmatutako hainbat istorio izan ziren, bailaran sineskeriak hedatu eta ondorioz sorgin-herri ospea hartu baitzuen. Ospe honen isla, egungo herriko jaien hasiera da; abuztuaren amaieran, jaien lehenengo eguneko gauerdian, "Xurgin xastea" deituriko

akelarrea ospatzen da. Inguruetako hainbat sorginek Bidankozeko sarreran dagoen "Lapitxorronga" haitzaren gainean topo egiten dute, ondoren herrira jaisten dira suaren inguruan dantzatzeko, eta azkenik "Maruxa" sorgina hegan iristen da jaien hasiera ira-



#### Belaskoko Harrartea sektorea

gartzen duen suziria pizteko. Bidankozeko beste hainbeste istorio eta herriari buruzko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, vidangoz.com web-orrian edo Bidankozarte blogean dago eskuragarri.

Baina bere historiaz gain, Bidankozeko herriak badu aparteko interesa. Egun, eraberritze prozesu batean murgildurik dago, eta

honi loturik azken urteetan hainbat ekintza burutu dira herriak duen kirol eta turismo eskaintza hobetzeko asmoz. Zehazki 2019 urtean udaletxearen inizatibaz, udalerriko horma naturalak baliatzen hasi ziren kirol eskaladarako, Nafarroako 2014-2020 Landa Eremuen Garapen Programaren laguntzarekin. Ekimen honen bitartez kirolzaleentzako

aukera turistikoa handitzea nahi da, maila guztietako eskalatzaileak erakarriz. Gainera, eskalada guneen ekipamenduz gain, BTT ibilbide berriak eta aparkaleku berezi bat ere atondu dira, bizikletak garbitzeko gune batekin, mahaiekin, autokarabanentzako lekuarekin, etab., kirolaz gozatzena datoztenei erraztasunak eskaintzeko asmoz.



## ESKALADA SEKTOREAK

Arestian aipatu bezala, azken urteetan Bidankoze inguruko hormak egokitu dira kirol eskaladaren praktikorako, hainbat bide ekipatuz sektore ezberdinetan. Bertako haitz mota kalitate handiko kareharria da, eta ekipaturiko bideek orokorrean 20 metro inguruko altuera dute. Bideak homologaturiko seguru kimikoe-kin eta bi mosketoidun bilguneekin ekipatuak daude.

Sektoreei dagokienez, egun bi azpimarratu daitezke:

- Belaskoko Harrartea: herrigunetik oso gertu kokaturik, horma nahiko luzea da eta maila ezberdineko bideak eskaintzen ditu. Hastapenerako bideetatik hasi eta zailtasun handiko (zortzigarren graduak) bide gogorragoetara aurki ditzakegu. Hala ere, kopuru aldetik erdiko maila duten eskalada bideak dira nagusi (seigarren eta zazpigarren graduak). Eskalada mota erresistentziazkoa da gehienbat, kantu txikiak eta ertainak dituen 20 metroko horma izanik. Aseguruen kokalekuak anitzak dira, arriskuak murrizteko pentsatuak. Horma hau hegoaldera begira dago, udaberrian, udazkenean eta neguan eskalatzeko orientazio egokia eskainiz.
- Azanzorea haizpea: leize batean kokaturik, atzera egiten duen kalitate altuko horma

handia da. Bide gehienak zailtasun handikoak dira, bederatzigarren gradurainoko bideak aurki daitezkeelarik, eta beraz maila altuko eskalatzaileentzat jolastoki oso aproposa eskaintzen duela esan daiteke. Bideek zulo eta helduleku txikiak dituzte, orokorrean indarra eta erresistentzia eskatzen duten bideak dira. Sektore honetara heltzeko, kotxez Burgirako bidea hartu behar da 3 bat kilometro, eta eskuinaldean kokaturik dagoen asfaltaturiko zelaigune batean aparkatu behar da. Errepidetik oinez 50 metro atzera egin ostean, SL bidearen seinalizazioa ikusiko dugu, eta bertatik sartuz 30 bat minutuan leizera helduko gara.

- Bi sektore nagusiez gain, bailarak aukera anitz eskaintzen ditu eskaladarako, eta etorkizunean ikusi beharko da eskalada gune hau haziz doan. Krokisen eta abarren informazio zehatzagoa nahi izanez gero, ekuragarri daude hurrengo helbidean: [http://vidangoz.com/es/?page\\_id=1203&lang=eu](http://vidangoz.com/es/?page_id=1203&lang=eu)

## BIBLIOGRAFIA

[http://vidangoz.com/es/?page\\_id=1203&lang=eu](http://vidangoz.com/es/?page_id=1203&lang=eu)  
<http://www.naturaspain.com/naturaleza-flora-y-fauna-en-el-municipio-de-vidangozbidankoze.html>  
<http://www.cinroncal.es/informacion/conservacion-de-la-naturaleza-es-0-226/mas-informacion/geologia-es.html>

**Bidankozen, azken urteetan, eskalada guneen ekipamenduaz gain, BTT ibilbide berriak sortu dira eta aparkaleku berezi bat ere atondu da**